

Skate festa  
ikusgarria  
Bonberenean



Graffiti koloretsuz apaindu  
zituzten etxeko hormak ▶ 6

Harpidedunei banatua ▶ Igandea ▶ 2005-10-23 ▶ III. urtea ▶ 718. zenbakia ▶ [www.tolosaldeko-hitza.info](http://www.tolosaldeko-hitza.info)

## Tolosako San Esteban auzokoari agur, eta ongietorri Alegiakoari

**KULTUR ASTEA** ▶ Auzo bazkariarekin agurtuko dute lehena; Alegian, Txintxarri Eguna ospatuko dute gaur ▶ 6



Alegian, talogintza tailerran parte hartu zuten gazteek atzo, Kultur Astearen lehen egunean. J. ASTIBIA

**BERROBI** ▶

### Urkola tabernak behin betiko itxi ditu atea, 43 urte eta gero

Hamaika oroitzen bildu dituzte Jose Urkolak eta Maria Dolores Irigoienek ▶ 4

**TOLOSA** ▶

### Wilma Ten Wolde koru zuzendariak eskaintako ikastaroa



Abesbatza Lehiaketan epaile lanetan ariko da holandarra ▶ 7

Wilma Ten Wolde. I. TERRADILLOS

**TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA** ▶

### Hiru aste besterik ez Behobia-Donostia lasterketarako

Iñaki Arratibel kirol medikuak aholku batzuk eman ditu probari ekiteko ▶ 5

**TOLOSA** ▶

### Giro bizia eta erosle asko atzoko azokan

Santu Guztien Eguna gertu dela, nabari ▶ 7



**'SAN INAZIO' MEDIKU ZENTROA**

R.P.S 401/04

**KONTSULTAK**

- Familiako medikuntza
- Oftamologia
- Erreabilitazioa
- Pediatria
- Arma eta gida baimenak

San Inazio, 2 (Muñazabal altzarrien ondoan) • TOLOSA  
EGUNERO - Tel.: 943 65 41 24



**LANDARRI, S.L**  
Hilerrien ustiapena eta kudeaketa

Kanposantuko Lanak

- |                          |                         |                          |
|--------------------------|-------------------------|--------------------------|
| - Ehorzketak             | - Hilerrien proiektuak  | - Panteoiak              |
| - Lurpetik atera         | - Hilerrien eraldaketa  | - Hilobiak               |
| - Gerakinen lekualdatzea | - Eraikuntza ezberdinak | - Estelak                |
| - Gerakinen errausketa   | - Hilobi apaingintza    | - Fotozaramiak           |
| - Errausketa zerbitzua   | - Hilariak              | - Estanpaziozko teknikak |

Santa klara, 1 behean - 20400 Tolosa      Bidasoa kalea, 7 behean - 20100 Errenteria  
Tel./Faxa: 943 67 01 14      Tel./Faxa: 943 34 04 67 - 943 51 31 41  
Zerbitzu Iraunkorra: 610 552 552      Zerbitzu Iraunkorra: [www.landarri.com](http://www.landarri.com)

## TOLOSALDEKOHITZA.INFO ▶

## Nola ikusten duzu bertsolaritzaren etorkizuna?

Nola ikusten dudana etorkizuna? Gaizki. 40 urtera ez naiz iritsi. Baina bertsolari gazteek, salbuespenik gabe, aspertu egiten naute. Zaharrak gustura entzuten ditut (Egaña, Lizaso... zaharren taldean sartzen ditut) Bertsola egiteko aurrena azken puntua pentsatu beharra aspaldiko kontua da. Baina gazteek zera egiten dute: azken puntua pentsatu, eta beste guztia betelana. Eta, horrela, ez dago bertso onik.

TOMAX ▶

Suposatzen dut belaunaldi bat edo, gehienez, bi gelditzen zaizkiola. Gure lanbide zahar asko galdu diren moduan, hau ere aurki galduko dugu.

ARITZ ▶

Ez nago batere ados aurrekoen iritziekin; batetik, atzean gertatzea ez da ona, eta bertsolaritzak ere aro modernoetara egokitu beharra dauka; eta, bestetik, bertsolari gazte ugari datozte atzetik, eta ez dakit nondik ateratzen duzen hori. Berrikuntzak beldurra ematen al digu? Euskal kulturak ez al du akaso gaur egungora egokitzea merezi?

KATU ▶

Euskal Herrian *reggaeton*-ak etorkizun gehiago du bertsolaritzak baino. Donostiako ikastetxe batetako irakaslea naiz, eta nire ikasle gehienek bertsolari bakar baten izena esaten ere ez dakite.

MAIXU JOXE ▶

Ez nuen espero horrelako erantzun ezkorrekin topatzerik. Bertso maila goraka doa, Bertsolari Txapelketa Nagusiko finaleko txartela lortzea inoiz baino zailagoa da aurten. Andoni Egañak ere ez du erraza izango txapela defenditzea. Bertsolari gazte mordoak ari da ate joka, eta hauei irtenbide egokia ematea da gakoa. Hala


ere, bertso saioetara gero eta zale gutxiago joateak zer pentsa ematen du, beharbada bertsolaritzari formatua aldatu eta herritarrengana eta, batez ere, gazteengana iristeko formula egokia bilatu beharko litzateke.

ETORKIZUN ONA ▶

Euskaraz egiten duen komunitatea aspertu egin dute bertsoak gorputzeko zulo guztietatik sartu behar horrekin. Eta euskaraz egiten ez duenik erakartzerik nik ez dut espero: alde horregatik, alferrikakoa iruditzen zait Bertsozale Elkarteak finala BECera eramatean egin duen apustua.

ERRAMUN ▶

## ARGAZKI ZAHARRA ▶



## Pilota partida oraindik estali gabe zegoen Beotibarren

**Erredakzioa** ▶ 1920 eta 1929 urteak bitartean ateratako argazkia da hau. Hain zuzen ere, Beotibar pilotalekuari eginikoa, partida batean. Arteen estali gabe zegoen frontoia. Ezkerreko aldean Elo-segitarren palko txikia ikus daiteke. Bihar, beste itxura batekin

bada ere, partida hartuko du ere Beotibarrek: Lau t'erdiko Txapelketa Nagusikoa, zehazki. Koka eta Olaizola I.a izango dira aurrez aurre, arratsaldeko bigarren partidari. 16:30ean hasiko da jaialdia. 'ARGAZKIAK TOLOSA (1920-1945). JOSE MARIA TUDURI ESNAI' LIBURUA

## hilberriak ▶

## Luis Marzol Labaien

jauna

Herenegun hil zen, Iruñean.

Zure irriparrean murgildurik  
eta zure indarraz aurre eginik,  
zure maitsunean murgildurik,  
aldendu zinen hegan gure artetik.

Gazteluko zure lagunek beti gogoan izango zaitugu.

Haren animaren alde oitotz bat eskatzen dizuete eta arren etor zaitetzela GAUR, IGANDEA, arratsaldeko 19:00ETAN, ARESOKO JASOKUNDEKO AMAREN elizan egingo den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.

GAZTELU, 2005eko urriaren 23a

## ▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan  
50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira  
Telf.: 943 65 56 95  
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

## GUTUN@K ▶

## Udal Euskaltegia

Aitzol Udal Euskaltegiko ikasleak, zoritxarrez, harrituta gaude Udalak —hori diote, behintzat— hartu berri duen erabakiagatik. Aurtengo ikasturtean, zentroko baldintzak eta tasak aldatu dituzte. Aurreko urteetan, matrikularen %75 itzultzen ziguten, baldintza zehatz batzuk bete gero. Aurten, aldiz, itzulketari hori %50era jaistea erabaki dute. Euskaltegiko zuzendariak ezer ez dakiela dio, baina guk azalpen bat nahi dugu. Aitzol Udal Euskaltegiko arduradunei edota Udaleko Euskara saileko arduradunei erantzun bat ejizitzen diegu. Erabaki honekin ondotoxo dakite zer lortuko duten, ez da zaila asmatzea. Hau da Udaletik euskalduntzeari eman nahi dioten laguntza. Zailtasunak eta oztopoak jarritz ez dute lortuko Tolosa euskaldunagoa izatea. A, ikasturteko matrikula ez da batere merkea.

JAVIER SAN SEBASTIAN ETA JAVIER HIDALGO ▶ TOLOSA

## TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))  
Osasuna.

- ▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212
- ▶ Anoeta-Alkiza-Hernalde. Medikua: 65 23 39
- ▶ Asteasu. Medikua: 692423
- ▶ Baliarrain. Medikua: 889003
- ▶ Berastegi-Elduain. Medikua: 683361
- ▶ Bidegoian. Medikua: 681134
- ▶ Ibarraldea. Osasun ebexa: 672411
- ▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329
- ▶ Irura. Osasun zentroa: 690720
- ▶ Leitza. Osasun z.: 948 510800
- ▶ Orendain. Medikua: 655595
- ▶ Oresa. Medikua: 682228
- ▶ Tolosa.

- ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
  - ▶ San Esteban: 006800
  - ▶ Gernikako arbola: 006900
  - ▶ Amaroako dispen.: 672637
  - ▶ Asunzion Klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)
  - ▶ DYA: 672536
  - ▶ Gurutze Gorria: 674888
  - ▶ Villabona. Anbulat.: 006970
  - ▶ Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930
- Garraioak.**
- ▶ Renfe: 902 24 02 02
  - ▶ Donostiako autobusa: 361740
  - ▶ Tolosaldea bus: 650621
  - ▶ Leitzaran autob.: 948 221015
  - ▶ Taxis: 670420
  - ▶ Taxis (Leitza): 608 873016
- Besterik.**
- ▶ Ertzaintza: 538820
  - ▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
  - ▶ Tolargi: 650016
  - ▶ Iurrumendi egotza: 670325
  - ▶ Tolosa gasa: 675320

EZBAIAN ▶ Ehiza garaia zabaldu berri denean, aldeko eta kontrako iritzia jaso ditu Hitzak tarte honetan

ALBERTO LUENGO (BIOLOGOA) ▶

## Ehizaren aurkako manifesto

**E**hizaren aldekoa al naizen galdetzen didate. Galdera hain zehatz eta zuzenak modu bereko erantzuna behar du. Eta hau, daukadan paperagatik, logikoki ezezkoa da. Zehazten dut: letra nagusiz idatzitako ezezkoa da, hurrengo lerroetan ahal dudan ondoen argudiatzen saiatuko naizena.

Ehiza, egun planteatzen den moduan, artifizioa da. Eta, hala, Naturan sortzen dituen eraginak justifikatzea oso zaila da kasu gehienetan. Baina horiek zenbatzera pasatu aurretik artifizioaren ideia hori azpimarratzea gustatuko litzaidake, Miguel Delibesen hitz batzuekin; zalantzarik gabe, hura izan da Naturarekiko maitasuna eta ehizarekiko afizioa bateratzen ondoen jakin izan duen pertsonaia. Prosa bidelagun, bere liburuetako batean oso kritika zorrotza egiten du baina, era berean, oso ondo pentsatua eta neurtua, egungo ehiza motei: «Zabaldutako begiak, nagusi. Gaur egun gizakiak ez du pazientziarik. [...] Eta nik diot, horrelako presaz badoaz, nola arraio izango dute pazientziarik eperra bilatu, aurkitu, altxatu, nekatu eta gero hiltzeko?».

Egunero ehizariak ez duela Natura eza gututzen dio hitz horiekin. Are gutxiago bere

legeak, ez du Naturaren erritmoa ulertzen, ez da hark eskainitakoa sentitzeko gai... Bekatari moduan erabiltzen ditu soilik, hari eraso egiten askotan, gehiegitan esango nuke, larderiaz, eta Delibesek ejiitzen duen errespeto hori gabe. Laburbilduz, XXI. mendeko ehiza ekintza bihozgabeta da, artifizioa.

Baina gatozen harira. Hona hemen ehizak eragiten duen hainbat inpaktu —ziurrenik beste hainbat aipatzeke geratuko dira...—:

Baso-pisten irekiera. Ehiza kalekume askoren denbora-pasa bihurtu da. Hala, hirietatik ehiza postuetaraino heltzea errazteko azkenaldian ugartu egin dira baso-pistak. Espezie askoren habitatearen galera eta zatitzea dakar horrek, eta, ondorioz, inguruko biodibertsitatearen desagertzea.

Kutsadura akustikoa. Igande batean Otzaurtetik paseatu besterik ez dago... Zaratak dena isilarazten du. Hitz batzuk gogoratzen ditut —egileaz ez naiz oroitzen—, indarkeria beti zarataz lagunduta heltzen dela diotenak. Jarduera zinegetikoa da bururazten zaidan adibiderik argiena.

Plumbismoa. Ehiztariek 300 milioi kartu txo inguru erabiltzen dituzte urtean, hau da,

84.000 milioi perdigoi, 10.500 tona berun. Badakigu beruna metal astuna dela, oso kutsakorra, makina bat espezieen heriotza eragiten duena, batez ere uretako hegaztiak. Ehiztaria, bere burua ekologizatzen jartzen duena, noiz ordezkatu du beruna altxairuagatik?

Espezie babestuen heriotza: belatz handia, zapelatza, mokozabala, lertxun hauskara eta hontz zuria. Denok dakigun bezala —batzuk kenduta...— hegazti hauek ezin dira ehizatu. Bada, nik neuk jaso nituen, tirokaturik zirela, iaz. Nire kontra esan daiteke horrelako gertakariak pistoladunen ekintzak direla. Ez dut inongo zalantzarik. Baina urtero-urtero ehiza elkarteek erakusten duten korporatibismoak gogaitu egiten nau. Horrelako gertakarien salaketek ehiztariak ondratu egingo litzute. Baina ez gaitzen en-

### ARTIFIZIOA

«Ehiza, esaten dutena esaten dutela, urtean 12 milioi hegazti gora hiltzen duen denbora-pasa besterik ez da»

RUFINO EIZMENDI (GIPUZKOAKO EHIZA FEDERAZIOKO LEHENDAKARIORE OHIA ETA TOLOSALDEKO EHIZA ARDURADUNA) ▶

## Errespetua, denaren gainetik

**N**atura eta haren zikloak ez ditugula ezagutzen esaten digute maiz ehizaren aurkakoek. Baina ez dute arrazoirik. Benetako ehiztariak lotura zuzena du naturarekin, eta haren erritmoa eta aldaketak gertu-gertutik jarraitzen ditu. Horrela gozatzen du ehiztariak, naturari begira, pazientzia handiz. Gizartean ehizaren inguruan informazio falta handia dagoela iruditzen zait. Asko eta asko dira ehiztarien kontra egiten dutenak, eta ez dakite benetan atzean zer dagoen: urte osoko lana, filosofia, antolaketa... Eta errespetua, gauza guztien gainetik. Ehizan hasi nahi duen gazte bat etortzen denean segituan antzematen zaio afizioa barrenbarrenean sentitzen duen edo eskopeta hartzeagatik soilik etortzen den. Eta ehiza gauza serioa da.

Egunero-egunero bizi dugun eromenaz eta estresaz ahazteko balio digu ehizak. Ezin da, ordea, itsu-itsuan aritu. Eta ehiztariok badakigu hori. Jarraitu beharreko arauak daude, eta horren arabera jokatzeko

dugu. Duela 10 urte baino askoz intzidentzia gutxiago daude egun, eta errespetu handiagoa. Elkarri ere jarraipena egiten diogu, gu baikara lehenak dena arauen barruan eta behar den bezala egin dadin interesa dugunak. Hori guztia barneraturik dugu. Ondo pasatu, lagun artean egon, naturaz gozatu, aldamenekoagandik ikasi... Ikustearekin soilik gozatu egiten dugu.

Arauak gero eta zorrotzagoak dira. Errua beti guri botatzen digute. Baina ehiza ez dugu guk asmatu. Eta ahal den guztia erregulatzeko saiatzen gara; duela 30 urte egiten ziren txikizioak desagertu egin dira, zorionez. Baserriarren kexarik ez dugu ja-

sozten. Mendizale batzuk protesta egiten digute tiroak non-nahi entzuten dituztelako. Eta gero aldamenetik pasatzen dira haiek, agur esan gabe ere, eta motxilan musika topera jarrita.

Espeziekin amaitzen dugula ere badiote. Gure erruz baten bat galduko balitz lehenak izango ginake protesta egiten. Errekurtsioen aprobetxamendua egiten dugu. Eta beti etorkizuna ziurtatuz. Leitzarango kanallean, adibidez, azkenaldian itota ari da agertzen orkatz mordoia. Lehengoan, esaterako, 27 bat ikusi zituzten. Eta inor ez da kexatu. Ehiztariak soilik. Eta kaleko usak desagertzen direnean? Horrelakoak salatu egin behar dira, eta ozen. Guk ez dugu inongo erresponsabilitaterik espezieen amaieran. Mendingoan, ibaietan egiten diren sarraskiak, non-nahi botatzen diren pozoiak... Horiexek dira heldu beharreko arazoak. Horren erantzukizuna denona baita.

Gipuzkoan 14 milatik gora federatu daude; denera, 22 bat mila ehiztari. Urtero 300-400 bat gazte hasi nahi du ehizean Gi-

gaina... hori ez da sekula ere gertatzen. Gainera, uste dut horrelako ekintzak ez direla puntualak, baizik eta ohikoak. Beti daude tiroak zorteko egunetan —eguraldi baldintza txarrak edo suteak eta uholdeak bezalakoak gertatzen diren horiek, non ehiza piezen defentsarok gaitasunak gutxiturik dauden—, oilagorra zain egoten ehizatzen jarraitzen da... Eta hori guztia hertsiki debekaturik egon arren Gipuzkoan ehiza erregulatzeko duen Arau Foralean.

Beste hainbat eragin, eta ez garrantzi txiki-gokiok: kartutxo funden zaborra, kotoen hesi zinergetikoen erabilera, ehiza espezieen etxekotzea, harraparien kontrola kotoetan tranpa eta pozoim bidez *gestio onaren* argudiopean... Eta abar luze bat. Ez dute arrastorik utzi nahi. Baina ezin dute.

Harro diot haiek gero eta gutxiago direla eta gu gero eta gehiago. Zorionez, gehien-go da eskopeta prismatikoengatik aldatzen duena. Oraindik ez du alderantzizko kasurik ezagutzen. Eta hori halaxe da Ekologia ideologia delako, proposamen etikoa. Ehiza, askori gustatzen ez bazaio ere, eta esan dutena esaten dutela, urtean 12 milioi hegazti gora hiltzen duen denbora-pasa bat besterik ez da. Amaitzeko, urriko goiz bat pasatu nahiko nuke ehiztari batekin, eztei-hegaldi ondorengo migrazioaz gozatzen erakusteko. Bere eskopetaren mira ez den beste ikuspegi batetik.

puzkoan. Denak kontra badaude, zergatik kopuru horiek? Arauak eta oztopoak gainditu behar dira, gastuei aurre egin...; eta, hala ere, ehiztari izan nahi dute. Gipuzkoako zazpigarren zona da Tolosaldea, eta 17 herri osatzen dute. Eskualde pribilegiatua dela esango nuke, baliabiderik dagokien. Oso ondo horniturik gaude. Ehiztari kopurua ere Gipuzkoako gehiengoetarikoa da, Goierriarekin batera. Bide batez, aprobetxatu nahiko nuke urte osoan ehiztari guztion alde lanean aritzen diren elkarteak eta jendea zoriontzeko.

Ehizan hasi nahi duenari hainbat aholku emango nizkioke. Lehenik eta behin, ondo informa dadin eskatuko nioke: ez badu etxean edo inguruan ehiztariarik, jo dezala dakien batengana. Gogoa ere eskatuko nioke. Baina pazientzia handiz jokatzeko, ez hastea mundua jateko irrikitan.

Errespetua eskatuko nioke, guztia errespetu gaitetik. Errespetatu arauak, albokoak, natura. Errespetua eskatzen diogu geure buruari, eta besteek ere gurekiko errespetua eskatuko nioke. Errespetua ez faltatzea, alegia. Batzuk gure afizioa gaizki ikusiko dute, besteek ez. Koloreak horretarako daude.

### iragarki laburrak ▶

<b>Gidariak.</b> Hurrengo deialdiak: Donostia, Eusko Jaurilaritza. Astean 35 ordu. Informazioa doan. 943 31 37 82.	astelehenetik ostiralera. Informazioa doan. 943 31 37 82.	<b>Correos.</b> Correos-ek langileak behar ditu honako lanetarako: banaketa, saiklapena eta bezeroari arreta. Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakira deituta.	libreak daude udalberako. 35 orduko asteak. Informazioa doan. 943 31 37 82.	ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informazioa doan 943 31 37 82 telefono zenbakira deituta.
<b>Haur eskola publikoak.</b> Haur zaintzaileak, bereziak, adinekoak eta hezitzaileak behar dira. Lanaldia,	<b>Garbitzaileak.</b> Lan finkoa: eraikin publikoak, ikastetxeak, ospitaleak. Astelehenetik ostiralera, 08:00etatik 15:00etara. Informa zaitetz 943 31 37 82.	<b>Administrari laguntzaileak.</b> Plaza	<b>Administrari laguntzaileak.</b> Plaza	<b>Laborategiak.</b> Plaza libreak. Teknikoak, ikertegiko laguntzaileak, Eusko Jaurilaritza. Informazioa doan 943 31 37 82.

## BERROBI ▶ GIZARTEA

REBEKA CALVO

**M**alko artean hasi da el-karrizketa. Berrobin guztiek ezagutzen duten Urkola tabernako Maria Dolores Irigoienek ezin die 43 lan urte «aberasgarrietan» pilatutako oroitzapenei eutsi. «Gogoan dut 1962an taberna hartu genueneko unea», dio Jose Urkolak, urteetan herriaren erdigunean atek parez pare zabalik izan dituen «aitorleku, taberna, denda, biltoki eta askotan banku» ere izan den Urkolatarren tabernako jabeak. Bertan herriko kontu guztiak bildu dira urteetan, «gure tabernak *Información Urkola* izena beharko luke eduki, hemen kontu guztien berri izan baitugu beti», dio txantxetan Josek.

Herriko festen azken eguna eta gero, abuztuaren 30ean hain zuzen, Urkola tabernak agurtu egin zuen herria, betiko, baina herri oso baten maitasuna lagun zutela. Bizilagun asko «triste» gerturatu dira azkenaldian Joserengana eta Maria-rengana adioarengatik. «Gure tabernaren parean bizi den emakume batek orain balkoiera atera eta atek itxita ikustean tristetu egiten dela ere esan digu, eta herriko ume batek ere orain goxokiak non erosiko dituen galdetu digu», agertu du Josek.

## 43 urte eta hamaika istorio

43 urte luze joan dira, eta horiekin batera mila historio eta bitxikeria. «60. hamarkadan-

# Herriko «aitorlekuari» agur

43 urte pasatu dira 1962ko urriaren 1ean Urkola tabernak atek zabaldu zituenetik, eta hauetan oroitzapen asko bildu dituzte Josek eta Mariak



Jose Urkola eta Maria Dolores Irigoien, barran, abuztuaren bertan eginiko argazkian. HITZA

edo hartu genuen taberna, lehenengo nire bi anaiak eta hirurok. Nik 28 urte nituen orduan, eta nire emazteak 22. Urtebete beranduago anaiekin hitz egin eta gu bertan gertzea erabaki genuen, ezkondu aurretik, gainera», zioen Josek. Hamaika bisita izan dituzte urte hauetan guztietan tabernan, eta Josek ez ditu ahaztu

Kaxianok bertan botatako parrandak.

Hala ere, garai desberdinak ziren orduan, ohiturak ere bestelakoak ziren; hori diote, behintzat, Urkolatarrek. «Orduan meza eta gero jende pila bat biltzen ginen tabernan hamaiketako egiteko, gerora mezetara ere jende gutxiago joaten da, eta orain ez zen gauza bera», dio Idoiak, Urkolatarren alabetako batek.

Urkola Taberna, gainera, horixe izan da beti, taberna. «Gu iritsi baino lehenago *estankua* bezala zen ezaguna, gure lokalak ehun urtetik gorako bizia du!», dio familiako gizonak. Ehun urte gorako bizia eta lan asko ikusitakoa, gainera. Izan ere, tabernari eta dendariaren lanak bereizgarriak badu, lan gogorra dela da. «Egun osoa ematen genuen lanean, goizean goizetik berandu arte. Egun osoa tabernan», diote. Gustura egindako lana, ordea. «Gure aitak beti gauza bera esaten du, lana jaia bezalakoia izan behar dela, horrela gustora egin eta errazago izaten da eta», azaldu du Mirenek, bikotearen beste alabak.

## «Lana, lana eta lana»

Josek, gainera, harategian ere egiten zuen lan, eta orduak harategiaren eta tabernaren artean ematen zituen. Mariak, aldiz, tabernako barrarekin, sukaldearekin, etxeko lanekin eta bestelakoekin bazuen nahikoa

lan. «Ez dakit nola egiten nuen ere! Alabentzat arropa josi, tabernako lanak egin, bazkariak, afariak, etxeko lanak...», harrituta egiten du atzera Mariak.

Urte gogorak izan arren, ez lituzketela aldatuko diote Mariak eta Josek, baita Mirenek eta Idoiak ere. «Bizimodu gogorra izan da, baina gauza asko eman dizkigu. Egia da ezkontzerakoan ere ez genuela taberna itxi, eta ondoren jada 12 urteetan tabernan oporrik hartu gabe egon, eta gero haritu genituela lehen aldiz oporrak 22 egunez Bernidormera joateako», diote. Ondoren ere Zilarrezko Ezteiak egin artean oporrik ez zuen egin familiak. «Tabernaren lana oso sufrutua da», diote.

Hala ere, «gustura» eman dituzte urte hauek, batez ere «herriak uneoro agertu digun maitasuna» dela medio. «Jendeak ez du sinesten. Horrenbeste urteetan, baita gu iritsi aurretik ere, gure tabernako atek beti egon dira zabalik, eta orain handik pasatu eta jendeak itxita ikusten dituenetan harritu ere egiten direla diote», azaldu du Josek; «eta baita gu ere», aitortzen du Mariak.

Orain Iruran bizi dira, baina ez dute etxean denbora askorik ematen; «beti kanpoan daude, gora eta behera», dio Mirenek. Urte hauek guztiak «ikaragarri politak» izan dira; baina ez bakarrik Urkolatarrentzat, baita berrobitar gutientzat ere.

## «Munduko krocketarik onenak»

Maria Dolores Irigoien eta Jose Urkola Zuriarrainen alabek tabernan eman dute bizi guztia. «Tabernaren gainean logelak-eta genituen, baina sukalde tabernakoa zen; beraz, han egiten genuen bizia», diote bi alabek.

Bertan lan egitea ere egokitu zaie behin baino gehiagotan. «Batez ere asteburuetan eta festetan laguntzen genuen, bestela ere bestelako egitekoak genituelako», gogoratu dute. Euren seme-alabek ere tabernan orduak eta orduak eman dituzte, batez ere «amonak oso ondo sukaldatzen» duelako. «Munduko krocketarik onenak amonak egiten ditu, eta babarrunak ere amonarenak dira onenak, amak ez daki babarrunik egiten», dio Idoiarren alabak.

Krocketak direla-eta badute pasadizorik familia honetan. «HITZAN bertan amaren urtebetetzean argazkia jarri genuen, eta alabari zer jarriko genuen galdetzean 'amonaren krocketak munduko onenak direla jarri behar dugu!', erantzun zigun. Esan eta egin. Ondoren, tabernara argazkia egunkaririk moztuta eraman zuen gizon bat azaldu zen, munduko krocketarik onenak jan nahi omen zituena!», azaldu du Mirenek.

Baina krocketak soilik ez. Herriko elkarte askotan Mariari ematen zizkieten ehizatutakoak sukaldatzeko. «Denetik sukaldatu dut, usoak, basurdeak, baita astoak ere...», azaldu du Mariak. Orain, tamalez, elkartetakoek ikasi egin beharko dute nola sukaldatu ehizatutakoa; baina «inorrek ez omen daki berak bezala ehiza preparamen», dio Josek.

Negozioa beti izan da oso izaera familiarrekoa, «guztiak egin dugu lan bertan, bazuetan izebak, lehengusuak besteetan, lagunak... Lagundu behar izan denetan beti izan dugu norbait alboan», diote Urkolatarrek, esker onez.

**OSTALARITZA**  
**GIDA**  
**2006**

**Tolosaldeko eta Goierriko:**

- Jatetxeak
- Erretegiak
- Pintxo tabernak
- Sagardotegiak

bilduko dituen gida.

Jarri zure iragarkia ostalaritza gidan

**17.000 aleko banaketa zabal**

Iragarkiak kontratatzeko:  
943 304 333  
publi@iragarr.net

**Goierri** **hitza**

KIROLA ▶

# Gutxi falta da

## Iñaki Arratibel medikuak Behobia-Donostia herri lasterketa behar den bezala egiteko aholku batzuk eman ditu

ERREDAKZIOA

**H**iru aste besterik ez dira falta Behobia-Donostia lasterketa jendetsurako. Eskualdeko korrikalari ugari izango dira bertan. Iñaki Arratibel kirol mediku tolosarrak lasterketa hau behar bezala prestatzeko eta lasterketa egunean jarraitzeko emandako aholkuak bildu ditugu orri honetan, «betiko zalantzak eta galderak» argitzeko.

«Gogoeta onen garaiak dira, kiloak direla eta, benetan kirolean hasi behar dela... Askok lehen helburu gisa Behobia-Donostia lasterketa hartzen dute, baina entrenamendu bolumen dezentea egin ez duenak hobe du beste lasterketa motzagoa edo beste helburu bat hartzea», dio sendagileak.

Hauek dira bere aholkuak: **Esfortzu proba.** Lehenik eta behin proba hori egiteko gai garen ala ez jakin behar da. Gai izateak esan nahi du alde zurritik entrenamendu bolumen minimoa beteta edukitzea. Bestalde, norberak jakin behar du horrelako proba bat egiteko inongo arazo edo debekurik duen ala ez. Zalantzak izanez gero, esfortzu proba egitea da egokiena, osasun egoera aztertu eta forma fisikoa neuritzen duelako, eta lasterketa hau bezalako proba batean aritzeko baiezkoa jaso daitekeelako. Entrenamenduen erritmoak finkatzea eta zein entrenamendu mota egin behar den jakitea da proba horren helburua.

**Erritmoa.** Iraupeneko proba bat da. Entrenamendu luzeak eskatzen ditu. Erritmoak ez luke garrantzitsuena izan behar; bai, ordea, erresistentzia. Norberak bere erritmoan luze entrenatu behar du. Lehenik erritmo konstantean entrenatu eta ez hasi serieak egiten. Ha-

sieran agian ez, baina kilometroak gora doazenean moles- tiak ager daitezke, batez ere berrientzat. Horrela bada, entrenamendua gelditu eta lehenbailehen medikuari galde- tu. Hobe egun pare bat galtzea lesio handia egitea baino.

**Edaria.** Edan egin behar da, nahiz egarririk ez sentitu. Berdin hotza egiten badu, edo izerdi gutxi botatzen badugu. Egarrria sentitzen dugunerako berandu izan daiteke. Orduko litro erdi bat edan beharko litzateke, bereziki ura, baina hobe merkatuan dauden produktue- tatik pittin bat botatzen bada uretan. Edaten ere entrena- menduetan hasi behar da. Ez utzi karrera egunerako, entre- namendu mota bat baita.

**Janzkera.** Ez da jantzi eta za- patila berrietan pentsatzeko garaia. Erabili eduki behar dira. Egun horretan zapatila berriak erabiliz gero, lesio bat izateko aukera handiak daude.

**Pisua.** Gehiegizko pisuak zama besterik ez du ematen. Gorpu- tzak egin behar duen lana as- koz handiagoa da; gainera, be- roa kanporatzeko arazo gehie- gi sortzen ditu. Azterketa medikuan gai hau ere garbi eduki behar da, debekuaren arrazoi bat izan daitekeelako.

**Janaria.** Alde batetik pisua egokitu behar da, baina beste- tik janariaren bidez ariketa fisi- koaren errekupezioa lantzen dugu. Entrenamendu garaiko elikadura eta karrera egune- koa desberdinak dira. Entrena- mendu garaian helburuak bi dira: pisua galtzea eta gastatu- takoa berreskuratzea. Honek kalorien finkapen egokia eska- tzen du, bai entrenamendu desberdinak direlako, bai pi- sua galdu behar bada sartzen diren eta gastatzen diren kalori- artean diferentzia izan be- har delako.

Lasterketaren egunerako eli- kadura edozer espezifikoa izan behar du, beti aurretik horrela *entrenatu* bada. Entrenamen- duetako igande batean laster- keta egunean bezala egin be- harko litzateke, gero arazorik ez izateko.

▶ Goizean goiz bada, kafea edo tea azukrearekin hartu, eta entrenatu ondoren gosari ona: zerealak, fruta, eta abar.

▶ Goiz erdian bada, bi ordu le- henago gosaldu, gehiegi izan gabe, eta gero entrenatzera joan. Berdin eguerdian bada, baina goiz erdian zerbait jan (fruta, bokadilotxo bat, barra energetikoa).

▶ Arratsaldean entrenatzen bada, bazkarian pisuak diren janariak baztertu.

▶ Gero beti entrenatu ondoren errekupezioa janaria: entsala- da, pasta edo arroz, haragia edo arraina, eta fruta.

▶ Karrera egunean garrantzi handiana bezperako afariak du. Orduan bai pasta edo arro- za, azkeneko karbohidratoen karga bezala, arraina eta fruta edo pastela. Egun horretan ez litzateke gosari berezirik egin behar, ohikoa dena baizik.

**Lasterketa eguna.**

▶ Edaria ez ahaztu, eta behar bada gelditu ura hartzera.

▶ Beti arropa egokia: ez plasti- ko edo zira bat. Esan bezala, ohiko arropa erabili.

▶ Bukaceran edaten segi ondo hidratatzeko. Ondo egiten ari garen modu erraza eta simple bat izaten da pixa argia bota- tzea. Iluna ateratzen bada gutxi hidratatu garelako esan nahi du.

▶ Gero errekupezioko baz- karia, beste atal batean idatzi dudan bezala.

**Azkena.** Ezin bada jarraitu, gel- ditu, astakeriarik ez egin. Kor- rikalari onak ere noizean behin erretiratu egiten dira, eta ez da ezer gertatzen.



Arratibel, Otermin eta Gil izako edizioko eskualdeko lehenak. J. SAIZAR

## Eskualdeko korrikalariak

**Joxemi Saizar** ▶ Eskualdeko korrikalari ugari izango da azaroaren 13an Behobiako irteeran. Gehienak herrikoiak dira, hau da, lasterketa buka- tzea edo, gehienez, duten mar- ka pertsonala hobetzea izan- go dute helburu. Baina beste batzuk aurrealdeko postuetan izaten saiatuko dira. Azken hilabete honetan kros ugari izan da Gipuzkoan, eta Tolosalde- ko eta Leitzaldeko zenbait kor- rikalari izan dira bertan. Aurrereko postuetan izan direnak erreparasatuko ditugu.

Ordiziako V. Josetxo Imaz Memorialean Alegian bizi den Juan Mari Garin zizurkildarra 15.a izan zen 33.10 eginez, Mañu Otermin amezketarra 29.a izan zen (34.23) eta Has- san Aitchaou billabonatarra 41.a (35.06). Guztira, eskual- deko 85 parte-hartzaile izan ziren. Herri Bira lasterketan Aingeru Mindegia leitzarra 9.a izan zen (32.24), Joxean Al- berdi zizurkildarra 13.a (33.36) eta Aritz Garin billabo- natarra 18.a (34.37). Zumaia- ko Zakila Bira karreraren Luis Mari Urizar billabonatarra 3.a izan zen (1.08.09), Joseba Agi- nagalde tolosarra 31.a (1.14.01) eta Xabier Larrarte irurarra 37.a (1.14.41). Donos- tiako Hiru Hondartzetako XVI. Krosean Aingeru Mindegia leitzarra 11.a izan zen (33.41),

Iker Pagola tolosarra 42.a (35.44) eta Asier Lasa tolosa- rra 50.a (36.17). Tolosako San Esteban krosean Hassan Ait- chaou 14.a izan zen (33.47), Iker Pagola 18.a (34.45) eta Aritz Garin 19.a (35.04). Do- nostiako Oinezko IX. Herri Lasterketan —15 kilometro— Aingeru Mindegia 6.a izan zen (50.58), Mañu Otermin 18.a (51.43) eta Iker Manso billabo- natarra 66.a (54.35).

Jazko edizioan Xabier Arra- tibel tolosarra (1.07.08), Jose Carlos Gil amaroztarra (1.07.48) eta Mañu Otermin amezketarra (1.08.42) izan zi- ren eskualdeko lehenak, hur- rrenez hurren, eta eskualdeko 296 parteide izan ziren. Aurre- ko urtean, 2003an, berriz, Juan Mari Garin (1.08.11), Ai- tor Odriozola tolosarra (1.12.28) eta Pello Izagirre as- teasuarra (1.12.41), eskualde- ko 294 korrikalari izanik. 2002an, berriz, Tolosaldeko 251 parte-hartzaile izan ziren, eta lehenak Juan Mari Garin (1.06.40), Aitor Odriozola (1.11.44) eta Patxi Goia tolosa- rra (1.12.19) izan ziren.

Oraindik izena eman nahi duenak badu aukera hilaren 27a bitarte. Tolosako Aralar Kirolak dendan egin dezake, edo [www.behobia-sansebas- tian.com](http://www.behobia-sansebas- tian.com) orrian. 20 euro ordaindu behar dira. ◀

hitza **txokoa** lagunen

# Egin zaitez harpidedun!

▶ 45 €-ren TRUKE, HITZA egunero jasotzeaz gain, HAINBAT ABANTAILA izango dituzte harpidedunek. Harpidedunen txartela izango dute, besteak beste, eta HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera.

▶ HITZAren harpidedun izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

TOLOSA ▶ GIZARTEA

## V. Skate festa Bonberenean

Kanpoko hormak apaintzeko aitzakian, graffiti erakustaldia egin dute

J. ASTIBIA

Atzo egin zuten Bonberenean V. Skate Festa. Lehiaketa hori aitzaki hartuta, ekintza koloretsu askoak egin zituzten.

Izan ere, graffitizaleek etxeko hesia marrazkiz eta irudiz eta, batez ere, kolorez josi zuten. Han ikusi zenaren arabera, marrazkilari bakoitzak bere teknika du: batzuk koardrikulak oinarri hartuta egiten dute plan-tila, besteak zuzenean; batzuk

paperean zuten marrazkia orman egin zuten, besteak buruz, irudimenari bide emanez. Guztiek kolore nahasketa egokia aukeratu eta spray-poteak astinduz, zehaztasunez lan egiten dutela erakutsi zuten.

Eta zehaztasuna ez ezik, tre-bezia ere behar den beste erakustaldi-sariketa ere izan zen: skate festa. Bertako nahiz kanpoko parte-hartzaileak izan ziren, eta bakoitzak pistako arraletan bere abileziak erakutsi

zituena: oreka, indarra, abiadura eta skatearekin egindako urrats korapilatsuak. Bertara bildu ziren ikusleen harridura piztu zuten. Eta, hau guztia, DJak giroari zegokion doinuak jartzen zituelarik.

Ez zen, ordea, musika saio bakarra izan atzoko festan. Handik aurrera, Kuraia taldeak bere azken lanaren aurkezpena egiteko baitzen hantxe bertan, *Piztu da piztia* diskoa, alegia.



Irudiak eta koloreak nagusi Bonbereneako hormetan. J. ASTIBIA

ALEGIA-TOLOSA ▶ KULTUR ASTEA

## Batzuk hasten eta besteak bukatzen...

Baina gaur Txintzarrien biltzarrean ala San Estebanen, bazkarian amaitu

JAIONE ASTIBIA

San Estebangoa gaur bukatuko da, Alegikoa atzo hasi zen; bietan hala bietan badago zer egin eta ikusi franko, ordea.

Alegian, gaur Txintzarri Eguna ospatuko dute, eta kontzertuak eskainiko dituzte bi abesbatzek, ondoren bazkaritara joanez; bihar, berriz, argazki-lehiaketaren inguruko ekitaldiak izanen dituzte. Besteak beste, hauek guztiak daude ikuskizun, aspaldiko urtetako Kultur Aste berreskuratua baita. Baina, hasi, atzo ekin zioten bideari, eta gazteentzat antolatutako taller batekin egin ere: talogintza ikastaro azkarra egin baitzuten goiz partean, herriko pilotalekuan, Arrasateko Ekin Emakumeak elkartearen eskutik. Hantxe aritu zen lagun taldea, txukun asko: arta-irinarekin orea egin lehun-lehun, perra-oholen gainean borobil-borobil zabaldu ahalik eta *puntilarik* gutxienekin, txapa beroan erre eta gero... Bada, horixe, jatea egokitzen eta, txokolate eta gazterkin nahaste, hamaiketako goxoa egin zuten. Gustura aritu ziren gaztetxoak eta antolatzaileak ere konforme, «Kultur Batzordetik gazteentzat zerbait

antolatzen dugun aurreneko aldia da eta», ziotenez.

Eta San Estebanen ere gazte-txoekin ekin zioten atzoko arratsaldeari, askotariko ekintzak izan baitzituzten haien-tzat. Altxorren bila aritu ziren auzoan zehar, bertako base-riren izenen berri galdetuz, marrazkiak eginez...; ohiko jolasak diren eltxitu haustea, puxika-jokoa...; buruhaundiak. Hauetan guztietan parte hartuz gero, gosea ere egin zitzaie, eta asetzeko aukera izan zuten txokolate jatean. Bitartean, helduentzat mus txapelketa burutu zuten Ferialekuan bertan. 18 bikotek parte hartu zuten, eta aurreneko hirurek jaso zuten saria, ez txarra batera, iskrizioan 20na euro eman zituztela kontutan hartuta.

Gauean Batuketeko-rekin eta Lord Sassafra-ekin dantzaldia egitekoak ziren.



Alegiako gazte talde honek taloak egiten ikasi zuen atzo goizean. Goxo askoak egin zituzten. J. ASTIBIA



Auzoko umeak eta baita kanpokoak ere altxorren bila abiatu baino lehen, ariketak apuntatzen. J. ASTIBIA

### ALEGIKO ETA TOLOSAKO SAN ESTEBANGO KULTUR ASTEAK ▶ EGITARAUAK

#### ALEGIA

**Gaur: Txintzarri Eguna.**

**11:15.** Mezan Nagusia Txintzarri eta Txintzarri Txiki abesbatzen parte-hartzearekin.  
**12:00.** Txintzarri eta Txintzarri Txiki abesbatzen kontzertua.

**14:30.** Bazkaria, Txintzarriin.

#### Bihar.

**19:30.** Udalebtean, argazki lehiaketako sari-banaketa eta erakusketaren irekiera.

#### SAN ESTEBAN

**Gaur.**

**09:00.** Diana txistulariekin.  
**10:00.** Trikitixa auzoko baseritarrekin.  
**11:00.** Meza auzoko hildakoen alde, San Frantzisko elizan.

**12:30.** Toka txapelketa gizonekoentzat eta emakumezkoentzat.  
**14:30.** Auzokide bazkaria.  
**Ondoren.** Dantzaldia, Algara orkestrarekin.

TOLOSA ▶ GERONTOLOGIKOA



## Ekimen berriarekin hasi da Gerontologikoaren aldeko plataforma

I. Terradillos ▶ *Eta orain zer?* lelopean hasi da kanpaina berriarekin Tolosako Gerontologikoaren aldeko plataforma. Ekimen honekin leloa biltzen duten kartelak etxebizitzetako balkoietan zintzili-

katzea lortu nahi dute, bere garaian dendariak eta tabernariak leihoetan eta ateetan jarritako mezua helarazten zuten bezala. Horretarako, atzo jardun zuten Trianguloan kartelak banatzen. i. t.

TOLOSA ▶ MUSIKA

# Abesbatzen atarian, udazkeneko ikastaroa

Wilma Ten Wolde koru zuzendari holandarra izan dute irakasle udazkeneko ikastarokoek; iaz bezala, Tolosako Abesbatza Lehiaketan epaile lanetan ariko da

INIGO TERRADILLOS

Luxuko irakaslea izan dute asteburu honetan Gipuzkoako Abesbatzen Federazioak antolatutako udazkeneko ikastaroan parte hartu dutenek, Wilma Ten Wolde holandarra, hain justu.

Holandako Ahots-Talentuen zuzendari artistikoa eta Herbehereetako Gazte Koruaren eta Haur Koruaren zuzendaria da Ten Wolde. Koru zuzendaritza eta eliza musika ikasi zituen Hagako Errege Kontserbatorioan —egun irakasle da bertan— eta Rotterdamekoan, eta musikologia Utrecheko Unibertsitatean. Gazteen pedagogia musikalean eta ahots hezkuntzan berezitu zen, eta horri buruzko hainbat artikulu idatzi ditu. Halaber, Kamarako hainbat abesbatza zuzendu ditu. Horretaz gain, epaimahaikide izan da holandarra hainbat nazioarteko abesbatza lehiaketetan; eta, horien artean, iaz eta aurten ere, Tolosakoan.

Hain zuzen ere, pasa den urtean epaile lanetan ari zela, Enrike Azurza epaimahai buruari proposatu zion ikastaroan par-

te hartzearena, eta ideia gauzatu egin da azkenean. Ez nolana, gainera. Hainbat eta hainbat lagunek hartu du parte Tolosako kontserbatorioan burutu den ikastaroan, eskualde-zein ingurutik etorritakoak, eta kantuaren eta koru zuzendaritzaren alor guztiak jorratu dituzte.

Holandarrak Hitzari azaldu dionez, «oso garrantzitsua da abesbatzen federazioek horrelako ikastaroak antolatzea, jakintza eta gaitasun berriak ikasi daitezkeelako eguneroko lanean erabiltzeko». Halaber, txundituta geratu dela azaldu du Tolosaldean nahiz Euskal Herrian koru ugari daudelako; gainera, «oso maila altua dago eta harro egoteko modukoa dela iruditzen zait», gehitu du.

Epaile bezala eta bere koruarekin parte hartzen aritu da Tolosako Nazioarteko Abesbatzan, eta esperientzia oso polita izan dela adierazi du. Egun horietan Tolosan sortzen den giroa «oso berezia» dela dio, bertan ez baita aurkaririk topatzen, «lagunartekoa izaten da», eta «antolatzaileak giro hori sortzen saiatzen dira».



Wilma Ten Wolde holandarra udazkeneko ikastaroan, atzo. I. TERRADILLOS

WILMA TEN WOLDE ▶ KORU ZUZENDARIA

«Txundituta geratu naiz Tolosaldean nahiz Euskal Herrian hainbeste koru ikustean; harro egoteko modukoa dela uste dut»

«Nazioarteko Abesbatzaren inguruan Tolosan sortzen den giroa oso berezia da; kompetentziarik gabekoa da, lagunartekoa»

AZOKA ▶

## Giro bizia eta erosle kopuru handia atzoko azokan

PABLO ALBERDI

Giro bizikoa izan zen atzoko azoka goiz osoan zehar. Dirudienez, eguraldiak eragin positiboa izateaz gain, urteko garaia ere nabaritu zen erosleen kopuruaren igoeran.

Eskaintzari buruz hitz eginen hasi baino lehen, Berdura plazaz eta apaingarriko landareen saltzaileei buruz hitz egin behar dugu. Datoren asteburuan Santu Guztien Eguna dela eta, produktuen zerrendari krisantemoak, erramuak eta zentroak gehitu dizkiote ekoirolek, eta honek dakarkien erosle igoera nabaria izan zen atzo.

Zerkausion ere erosle ugari izan zen, eta zerbait aipatzearen, ehiza eskaintza nabarmenduko dugu. Garaia puri-puritan dago, eta adituek diotenez, ez dira uso gehienak oraindik iritsi. Datoren astean areagotuko omen da eskaintza.

ATZOKO AZOKA ▶

Berdura plaza	merk.	gares.
Pensamientoa	1,00	-
Klabeledina	4,00	9,00

Bertako produktuak		
Uxoa	5,00	6,00
Orntoa	10,00	22,00

Produktu ekologikoak		
Arroza	1,90	2,00
Azenarioa	2,00	2,50

iragarki laburrak ▶

**LANA**  
**Garbitzaileak.** Bi neska eskaintzen dira portal, eskaratze eta abarren garbiketarako. 943 68 30 57 eta 943 68 35 70.  
**Etzeko lanak.** Emakume bat behar da bi ume zaintzeko eta etzeko lanak egiteko arratsaldez. 661 21 28 37 (deitu goizez).  
**Muntatzaileak.** Leitzako enpresa batek pladur muntatzaileak edo ofizioa ikasteko gogoia duten langileak behar ditu. Lana Leitzeta eta inguruan. 699 65 95 26.  
**Sukaldaria.** Emakume sukaldaria behar da. Ingandetan jai. 606 61 52 93.

**SALGAI**  
**Lokala.** Lokala salgai. Apaizerreka kalea (Ibarra). 35 m<sup>2</sup>, 36.000 euro. 639 72 42 60.



**Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urriaren 23a, igandea ▶ III. urtea**

GAURKO EGURALDIA



**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**  
(Zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko...)

**943 30 43 46**

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Zizurkil.** Zizurkil Goian VIII. Azoka Berezia. 11:00etatik 14:30era eta 16:00etatik 19:30era: Euskal Herri osoko baserriko produktuak eta artisauro produktuak; 13:00etan, Baserriko Argia sari banaketa; 14:00etan, bazkaria; 19:00etan, trikitilariak eta dantzariak. **Zizurkil.** Udaleko Euskara sailak Andoain, Aduna, Alkiza, Asteasu, Amasa-Villabona, Anoeta, Iruira, Larraul eta Zizurkilgo herritarrentzat Teodoro Hernandez IV. Ipuin Lehiaketaren deialdia egin du. Lanak azaroaren 28rako entregatu behar dira, udaletxean. **Villabona.** 18/98+ Kaiera ekimena iritsiko da. Berdura plazan, 18:00etatik aurrera.

**ERAKUSKETAK**

**Ibarra.** San Bartolome jaietako argazki erakusketa. Azaroaren 4ra arte, Kultur Etxean. **Tolosa.** Asociacion de Amigos Cuba y p'ante elkarteak antolatutako erakusketa, Kultur Etxean. Gaur da azken eguna.

**GUARDIAKO FARMAZIAK**

**Gaur**  
**Leitza.** Gimeno A. Elbarren 52. 112  
**Tolosa.** M. I. Kale Nagusia, 7. 943 67 06 48.  
**Bihar**  
**Leitza.** Larraiga M.I. Elbarren 95. 112.  
**Tolosa.** Ollareaga A. Korreo kalea, 2. 943 67 01 28.

**IRRATIA**

**Txolarre Irratia**  
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa:* 11:00etan, eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepasa, albisteak, oharrak...; 11:45ean, 18/98+ plataformak antolatutako Kaiera Villabonan izango da: sumarioan auzipetutako Mikel Egibar zizurkildarrekirin solasaldia; 12:00etan, *Galtzaurdi eta Aiurri* aldizkari errepasa bertako kazetarien eskutik; 12:20etan, agenda, datoen egunotararako kultur ekitaldi nagusiak Tolosaldean; 12:30ean, Gerontologiakoaren aldeko taldeko kide batekin solasaldia, abiatu berri duten kampainaren berri emateko; 13:15ean, lehiaketa eta disko eskainiak.  
19:00-21:00. *Tolosaldeko ahotsa.*  
21:00-22:00. *Argizirin aitaldia,* Xoroxin irratiaren eskutik. Arrosa Irrati Ekoizpen Zentroaren bitartez.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

# Zer egin larrialdien aurrean?

**LEABURU-TXARAMA ▶ Tolosaldeko bi suhiltzaile izan ziren atzo herrian larrialdi baten aurrean sua itzaltzeko materiala nola erabili irakasten**



Herriko plazara bildutako jendeak adi entzun zituen suhiltzaileek emandako argibideak. I. TERRADILLOS



Bi suhiltzaileek pausoz pauso azaldu zizkieten herritarrei egin beharrekoak, azken punturaino, hau da, mangeratik ura botatzeraino. I. TERRADILLOS

**IÑIGO TERRADILLOS**

**D**uela gutxi jarri zituzten Leaburun 180 metroko mangerak dituzten 5 armairu herriko auzoetan zehar banaturik. Larrialdien bat gertatzean, ordea, horiek erabiltzen jakin behar da, eta horretara joan ziren atzo Tolosa bi suhiltzaile, herritarrei suteraren bat gertatuz gero jarraitu beharreko pausoak zeintzuk izan behar duten argitzera. Hori bai, lehendabizi 112 zenbakira hots egin behar dela eta ondoren mangerak prestatzen hasi azaldu zuten. Jende asko joan zen eskola bereziak jasotzera; izan ere, gaiak duen garrantziak ez zuen gutxiago mezezi.

**HITZA,**  
**zorion agurren**  
**tartea**

Urtebetetzeak,  
urrezko ezteiak,  
ezkontzak, jaioberriak...  
zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzetara:  
Araba etorbidea, 5 behea - TOLOSA  
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, argazkia  
bi egun lehenago ekarri.  
Mila esker!

**PILOTA PARTIDUAK**

aspepelota.com

Capellan - Apeztegia  
Mtz. de Irujo - Nalda III.a

KOKA - OLAIZOLA I.a  
(Lau t'erdiko txapelketa)

Larralede - Auxkin  
Berasaluze IX.a - Arroyo II .a

**Tolosako Beotibar pilotalekuan**  
**Urriak 24 astelehena**  
**arratsaldeko 16:30ean**